

... eta kitto!

ITURRI ONETIK

“Minutu bateko atzerapenez heldu ezker, dirua bueltatzen da”

Mensajeroak tximistak pare ibiltzen diren errekadistak

Zazpi urte bete dira urriaren 28an. 1984eko egun hartan 400 zm³ko Yamaha batek eta 200 zm³ko beste bi Lambretta bide berriak zabaltzen hasi ziren eta, handik aurrera, gure begiek beltzez edo, ilunez behintzat, jantzitako motorista bereziak ikustera ohitu ziren. Heuren betebeharra garraio-bide baten parekoa, berdina ez bada ere: hau da, toki baten jasotako paketea edo edozer gauza dela ere beste bate-raino eramatea. Zuen eskuetara iristen den produktu hone-tan ere bitartekari papera jokatu du; horrexegatik, baka-rrik izanda ere, betetzen duten lanaz zeozer gehiago jakitez nahi izan dugu.

Mensajería batek egiten duen lanak badu zerikusirik beste garraio agentzia edozeinekin baina, aldi berean, bien arteko desberdintasunak begibista-koak dira. Adibide bezala zera aipatu dezakegu: Eibar guztian mensajería bakar bat dagoen bitartean garraio agentziak, denok dakigunez, ugariagoak dira.

Historia pixka bat eginez, Estatu mailan 70. hamarkadaren erdikaldean sorturiko ideia honek -Estatu Ba-tuetatik inportatua, seguruenik- ur-gentzien azeleratzea ekarri zuen be-rarekin. Ordurarte Estatuko iparral-dean 24 ordutan eta hegoaldean 48tan, epe horretan, entregatzen zi-ren urgentzia edo presazko bidalpe-nak. Zerbitzu honen azalpenarekin, iraultza bat ematen da eta Estatuko hiriburuen artean betebeharrak berdina 16 ordutan egitea segurtatzen da.

Guzti honek goi mailako garraio-bide mota bat eskatzen du, arina, bizkorra eta seguruagoa, prezioetan ere nabari daitekelarik.

Eibarko Ordezkaritzaren eboluzioa

Ostu zenetik gaur arte zenbait al-daketa bizi izan ditu, naiz eta Urki-zuko leku berdinean jarraitu. Hasie-ra bateko Moto Mensajeros Eibar-ek, 3 mezulari eta telefonista bate-kin ekin zion lanari. 86ko martxoan beste Ordezkaritza bat zabaldu zu-ten Arrasaten eta 88ko urrian Eibar-ko Moto Mensajeroek Bergara-

Leintzeko Mensajeroekin batu ziren Ordua S. L. sortuz. Gaur egun, izen berarekin jarraitzen dute, komer-tzialki: MRW badira ere. Geroztik beste 2 Delegazio zabaldu dira, Az-peitia eta Durangon.

Eibarko Delegazioa ezarri zenean bera izan zen hiriburu batetik kanpo bakarra eta Itziartik Durangoraino

MENSAJERIA ZERBITZUEN ERABILERA

%60	Industriak
%20	Erakunde publikoak
%12	Finantziar erakundeak
%4	Gestio enpresak
%2	Merkataritza
%1'5	Lanbide liberalak
%0'5	Partikularrak

Industriak dira, erakundekin bate-ra, zerbitzu gehien eskatzen dituzte-nak Partikularren kasuan, korreo-ek bete dezake lan hori, eskatutako zerbitzuz berehalakoa ez bait da izaten gehienetan

eta Lekeitiotik Ormaitegiraino har-tzen den esparrua betetzen zuen.

1984eko Ordezkaritza hartatik gaur egungo laura pasatu bagara, ez da gutxiagorik gertatzen barruan la-nean ari den jende kopuruarekin: hasierako hirurak 22 bihurtu dira -8 Eibarren, 7 Arrasaten, 4 Durangon



Motorrakin ibiltzeko batez ere, lana neketsua egiten da.

eta 3 Azpeitian-, administrariak ere 10eraino iritsi dira eta agente ko-mertzialak azaldu zaizkigu.

Eibarko jendeari dagokionez, seik kotxez egiten dute lan, beste biak motorrez baliatzen diren bitar-tean. Ikusten denez, kotxeek moter-ren eremua jaten doaz. Dena den, “hau horrela izanik ere, hemengo trafikoa arazoak direla eta, hiri barru-ko bidaietarako motorren presentzia beharrezkoa da eta ez dira desagertu-ko”, Joseba Perales gerenteak dio-enez.

Zerbitzuaren ezaugarriak

Hiri barruan, Ermua ere kontutan harturik, hogeiren bat irtenaldi izat-en dira egunero Eibarko Ordezka-ritzan. Hemendik kanpo, bidaia gehienak Donostiarako bidea har-tzen dute, hauen atzetik Bilbora eta Gasteiza egiten direnak aurkitzen direlarik. Gaueko zubiei dagokio-nez, hots, egun batetik bestera egi-ten diren zerbitzuak, Madril eta Bartzelonara zuzendutakoak dira gehien eskatzen direnak. Eguneroko

zerbitzuetan eta urgentzia motari be-gira, alde batetik “berehalakoa” da-go eta, bestetik, “erregularra”, goi mailakoa baldin bada ere. “Bien ar-teko desberdintasuna prezioetan argi ikusten da eta batzutan bezeroari ur-gentea bezala zer ulertzen duen gal-detu behar izan diogu, gehien kome-ni zaiona eskeini ahal izateko” dios-ku J.Peralesek.

“Aldi berean” jarraitzen du, “be-zeroak ordutegia beteko dugunaren garrantia dauka. Minutu bateko atze-rapenez entregatu ezker, ordaindu-takoa bueltatzen zaio, tarifetan azaltzen dan legez. Horrela, egun batetik besterakoak ere goizeko ha-marrak aurretik entregatzera behar-tuta gaude”. Guzti hau ahalbidera-tzeko ordezkaritzak ugaldtu egin dira -223 Estatu guztian-. Airezko zer-bitzuak ere erabiltzen dira, garraioa eta gestioa konbinatzen dituen lan honetan.

Geroari begira eta beste hainbat tokitan bezala, hemendik egun bat-zutara Itziarko Industri Poligonoan buzoi bat ipintzekotan dira.

Eibarko Ordezkaritza zabaldu zenean Alberto Egialde Yamaha 400 zm³ko motarraz hasi zen lane-an. Ordutik hona, denbora baten lan honetatik kanpo egon bada ere, berriro bueltatu zen eta egun kotxe baten gidaria da. Hau aprobetxa-tuz solasalditxoa izan dugu berare-kin.

“Motor gainean ibiltzeak baditu bere ondorioak. Lan gogorra dela esango nuke, horretaz ez dago duda izpirik”. Neguan jasan behar duten klimatologiaren eraginari buruz, “era-biltzen dugun erropak egun baterako balio badu ere, luzerako ez da iza-ten”. Horrez gain neketsua dela ere badio” alde bietatik, fisikoari begira eta baita era psikikoari. “Eta gehien beldurtzen zaituena jausi eta hartzen dituzun ostiak dira, bi errueda gaine-an bait zabilza denbora guztian”.

Hemen daramatzaten bizitzari da-gokionez, “taxisten antzerakoa da. Deiaren zain egon behar gara eta gure lan ordutegia goizeko 8tik arratsalde-ko 8rak artekoa da. Ez dugu bazkal-tzeko ordurik; horretarako gure artez ados jarri eta konpontzen gera”.

Urte hauetan bizitako aldaketei be-gira “hasiera baten ia motorra man-tenitzeko bakarrik irabazten genuen. Orain ezberdina da. Dena den, auto-nomoak bezala gaude eta enpresa da lana aurkitzen arduratzen dena. Egi-ten ditugun bidaiaren arauera kobra-tzen dugu”.

“Paketearen gainean egotea” beza-la definitzen du zerbitzua, “istripurik izanda ere, beti izaten bait gara gaine-an, Ordezkaritza sareak ematen digun posibilitateari esker”. Bestalde, zer-bitzuak eskeintzen dion aukerak “jen-deak erabiltzen ez jakiteak” sortzen dizkio kezka handienak.

... eta gainera

- “Umore giroan” Pedro Zelaiaren liburu berria dela eta. (2. orrial.)
- Kultur batzordeak partizipazioa, he-mengo rocka eta euskara bultzatuko. (3. orrial.)
- Lorea Elduairen eta Eibarko idazleen artxiboa. (6. orrial.)
- Pakita Arrizabalaga “Sahietsa” jostuna-rekin tertulixan. (7. orrial.)
- Gaztainerre (8. orrial.)

EBOLUZIOA

	1.985	1.990
Eguneroko zerbitzuak	16	280
Eguneroko zubiak	—	800
Gaueko zubiak	35	2.000
Nazioarteko zerbitzuak	—	120
Ohizko bezeroak	25	550

Eboluzio honetan kontutan izan behar da Delegazio bat egiteak lau izatera pasatu direla.

BULEGO MATERIALA ETA ALTZARIAK
ETESA
KOMERTZIALA

Bidebarrieta, 66. 428 Postakutxa / Tfnoa. 12 19 73 (Eibar)

NEURTEK S.A.

AMAITUTAKO SUPERFIZIEN KALITATEA
KONTROLATZEKO TRESNAK

Txaltxa Zelai 1. Tfnoa. 702079. Faxa: 700212 EIBAR

FIAT

Tfnoa. 12 10 00
12 10 19

Bittor Sarasketa 7.

DEBA ALDEKO BANATZAILEA

HOGEL, S.A


EIBAR

S. Andres bisperatan aurkeztu edo presentauko da.

Pedro Zelaiaren "Umore Giroan" liburua dala ta

Azaroaren 28an aurkeztuko da Ego Ibarra Batzordearen eskutik argitara emandako boskarren liburua. Pedro Zelaiaren "Umore Giroan" izenekoak. Hainbat urtetan egileak han-hemenka batutako txiste, pasadizo eta kontaera xebleak irakurriko ditxugu barruan. Asko eta asko "Eibar" aldizkarian kaleratutakoak, beste hainbat, egileak berak bere poltsikoan gordeta zeuzkanak: berrehun bat, gutxi gora behera. Juan San Martinek orduan ateratako "Zirikadak" eta "Eztenkadak" liburuen altxorrari oingo hau gehitxu beharko jako hemendik aurrera. Garai bateko pentsakera, bizimodu, ohiturak eta izatea..., egileak inprenta-orrietara eruan dau eta bere hamar kapitulu nagusixak horren ejenplu dira: "Eibarko gizon xelebriak" izenekoan ia mende hasierakoak ziren honako gizon hauen esanak (eta izanak, izkutuan...) kontatzen doskuz: Marzelo Gisasola "Katu-Baltxa", Kaetano Kareaga, Marino Solaguren, Bruno Larrañaga "Gantxus", Eustakio Arrizala "Otua", Felix Gorrotxategi "Felix Legarre", Jazinto Arrillaga "Kaporal", Andres Urionabarrenetxea "Punteret", Marzelo Larreategi "Balbotin" eta Patxiko Larrañaga dira hor agertuko jakuzenak.

"Plaentxiatarren gatza", "Biurrikerixak", "Estraperlo Denboran", "Krisis-urtietako gauzak", "Adarra jotzen", "Kazari-xenak", eta amaitzeko "Danetik zeozer" izenekoak. Herrixa pixkat hobetuago ezagutzeko, herri honen filosofia ezagutzeko eta orduko giroaz jabetzeko apartekoak da Zelaiak prestatu doskuna. Nagusixak gustora irakurriko dabe baina gazteak ez dira atzean gelditxuko beren herrixa apurtxo bat gehixago ezagutu nahi badabe. "Plaentxiatarren Gatza" horretan herri bixen arteko tira-bira umoretsuak irakurriko doguz. Behar bada, "Estraperlo denboran" eta "Krisis urtietako"ak dira gazteei urriñen geratuko jakuezenak, baiña historia-liburu askok esaten ez dabena dago bertan. Liburu horrek badauka beste nobedade bat ere: hiru marrazkilari eibartar benetan ezagunek, J.A. Azpi-



likuetak, Paulino Larrañagak eta Ander Gisasolak, euren dibujuekin edertu egin ditxue Zelaiaren kontakizunak. Danera hogeiren bat dibuju. Ego Ibarren ustetan, liburuak kaleratzen diranean, bertako herriko dibujante, pintore, marrazkilariak ere ateak zabalik eduki behar ditxue eta emon ahal dabezen neurrixan euren kolaboraziñua eskatu egingo jakue. Ez da bakarrik dotoretzeagaitxik, horrela eginda, letrak eta irudiak batu egiten diralako eta batziaz gain ahalik eta partehartzerik

haundixena eskuratu egiten dalako. Aipatzekoa da baitxa ere atarikoak edo hitzaurrea Juan Martin Elempuru Uberako idazlearen eskutik joan dala oraingo honetan. Aurkezpena goian esan moduan, azaroaren 28an izango da Udaletxeko Batzar Aretoan arratsaldeko 7'30etan. Hitzaldia J.L. Ansorenaren esku geratu da eta umorearen gaixa astinduko dau Zelaiaren "Umoren Giroan" argitara-berria ardatz moduan erabiliz.

IRAKURLEAREN TXOKOA

Euskal idazle famatu batek, Bernardo Atxagak, lehengo astean Frankfurteko liburu azokan zionez, lelokeria omen da Gasteizen euskara baino ingelesa ikasten jende gehiago aritzea. Gasteizentzat esanak ez ote du Eibarretzat inolako baliorik? Eibar hizkuntz ikastetxe, akademi eta irakasle partikularrez beta dago. Ez uste hauek gure hizkuntza irakasteko direnik. Euskaraz hitzik egiteko gi ez direnak, edo betidanik euskaraz hitzegin eta ezin irakurri eta idatzi dutenak orain bapatean ingelesez ederto ari dira.

Ba dira zenbait gainera alemana, frantsesa edo italiano ere irakasten dutenak. Eibar poliglotaz josita izango dugu laister, harro izateko moduan gaude. Bitartean Udal Euskaltegia, AEK hor daude jendea hartzeko zai. Euskara ikasteko borondaterik ez duten eibartarrak joan bitez beraien ingelez, aleman edo frantsesarekin hizkuntz horien lurraldeetara, Eibartarrok lehenengotik geurea behar dugu eta ondoren beste guztiak ikasi.

Amañakoa

Sariketa

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno hori hala bada eta IKUSONIKek oparituko duen diska irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanaz!

Eibarko Udala - Euskara Zerbitzua
...Eta Kitto Sariketa"

29. Aleko Sariketaren erantzuna "Legarre Kalean dago. "Villa Marina" etxea da" zen. SARITUA: M.K. ALBERDI, Legarren bizi dena. Hurrengo Sariketarako Azaroaren 20a baino lehen bidali behar dira erantzunak. SORTE ON!!!

URRIAN


EUSKERAZ

HERTZAINAK Zuzenean
T. ARTOLA ETA A. ZUBIRIA.
"Folk-Lore-Sorta I"
OSKORRI. "Hi ere dantzari"
JOSELU ANAIK. "Ondo ibili"

Diska Salduenak

ERDERAZ

DIRE STRAITS. "On every street"
BARRICADA. "Porinstinto"
R.E.M. "Out of time"
MECANO. "Aidalai"
GUNS N'ROSES. "Use your illusion"



Txarakuak ere ihesari eman dio. Horrela da. Bagenekien biztanlegoen kopuruak beherantz egin duela, batez ere tailer askoren desagerpen eta lekuz aldatetaren ondorioz. Orain gaitz hau baserriraino eraman dugu. Gure arbasoek zapal dutako lurrek ez zaie nahikoak iruditzen gidatzen ditugun kotxeei eta hauen kabituezinak inperialismora bultzatzen gaitu. Belar gainean txikitian pasatutako denbora haiek gogoratzeaz konformatu beharko gara. Ea izenik ez dugun ahazten eta "Txarakuako Parajea" edo mantentzen dugun.





Gaztainerre eguna bertan

Zerrailatxotik begira jarraitzen dut oraindik, finko, Eibarreko bizilagunen arteko gorabehera ezberdinen mugimenduak mirestuz. Jadanik udazken zorabiatu honen burusiak estaltzen gaitu eta armairutik jantzi ezberdinak sartu eta ateratzeaz gain, zenbait eginbeharren aurrepentsatzea ere dakarkigu.

Bai, bai badator Fermin (edo Antonio edo Patxiku...) bere traste guztiakin gaztainerre Untzagan saltzera. Gaztainerre erretzean, Ferminen inguruan sortutako bero eta usain ezaguna, amonaren batek etxean egosi dituen gaztainerre usain goxoarekin bat egiten dira. Era ezberdinetara egoniko gaztainerre ditugu baina biak, udazkenak aurkeztutako "Gaztainerre" eguneko jangai goxoa.

Gaztainerre eguna bertan dugu, prit-prat-en bezpera... Ohitura erdi galduaren oroitzapena. Zergatik diodan hori? Ez dut nik asmatu ez. Badira urte batzuek, bai, Eibartar askoren "Gaztainerre" eguna gaur baino gaztainerre. Galde iezaiozue bestela hainbat gaztainerre ospatu dituen Untzaganako aitona, hor daukagu, marraskilo eta gaztainerre hornitutako afariak gogoratzen. Astelena pilotalekuen egoniko dantzak berbizi nahiean, lan eguna izan arren gauaren jaiak hori ahazteratzen zuela oroituaz... Hor dugu aitzitza gaur eguneko gaztainerre iritziak ulertu ezinean.

Baina nola ikusarazi gure gaurko jai hauek, askoz ere hobeak direla erositasuna nagusi den gizarte honetan? Nola esan askoz ere errezagoa dela marraskiloak, afariko menutik desagertaraztea, pare bat arrautzengatik, zu zeu mendira joan beharrean, animalia txiki eta hain presiatuak diren horien bila. Nola adierazi nahiago dela prit-prat bezpera dantza gabe igarotzea (gaur egun dantza soila ez bait dirudi jai gogoia esetzen duenik eta). Zelan esan beraie hain tinko, hain fin jarraitutako ohitura hori, ez duela hain sakonean ospatua izatea merezi?

Erosotasunak amildu du ohitura gogoia eta horrek, goibeldur du Gaztainerre eguna. Sarraizulotik begira jarraitzen dut eta ene ustetan, egun hori ospatua izango denaren esperantzak badu oraindik gar apurtxo bat. Agian, jende artean, udazkenak hotzitutako kaleei aurka eginez, jango ditugu etxe barnean, epeletan, jai giroan, hain puzkartiak izatea eragiten dizkiguten gaztainerre. Edo beharbada, zerbait jateagatik jango ditugu Ferminen edo Antonioren edo ta Patxikuren gaztainerre, agian amonarenak, zentsu gabe. Bi aukerak ditugu bertan, aukera dezagun bada: aitzitxaren biderei ekin diezaiogun edo ta erositasunari beste bataila bat irabazten utzi.

Ekin pentsatzeari bada lagunok. Hurregorarte.

Udal Kultura Sailak hiritarren partizipazioa bultzatuko du legislatura honetan

Hiritarren partizipazioa bultzatzea izango da, datozen lau urteetan, Eibarko Udal Kultura Sailaren helburu nagusia. Arlo kultural bakoitzak bere komisioa edukiko du, herriko "adituek" parte hartuko dutelarik. Aurten 50 miloi erabili dituen zerbitzu honek lehendik egindako ziklo eta planak jarraituko ditu, baina ikuspegi batzuk aldatuko ditu, alde musikal

kontratazioen arloan, esate baterako. Nahiz eta azpiegitura kulturalak, AYA eta Koliseoa prest egon arte, beste prioritate batzuen atzetik egon, Eibarko Udalak kulturaren alde egiten duen ahalegin ekonomikoa zihurtatuta dago legislatura osorako, José Mediavilla zinegotziak aditzera eman zuenez.


Kultura sailek ez dute berdin funtzionatzen erakunde publiko guztietan. Batzuentzat, bazterturik dagoen traste inkomodo bat besterik ez da. Beste batzuek, aldiz, arlo espektakular batean ikusten dute kultura, ekitaldi haundi eta garestiak antolatuz, errentabilitate politikoen bila. Baina kultur saila ikuspegi partizipatibo eta hiritarrei lotuta ikusteko gai diren erakundeak ere badira, antza...

"Gure helburua hiritarren partizipazioa bultzatzea da" dio José Luis González, Eibarko Udaleko kultur dinamizatzaileak. "Parte hartze hau komisioen bitartez egin nahi dugu. Plana zera da: arlo kultural bakoitzak, musika edo antzerkia esate baterako, bere komisioa izango du, bertan herriko "adituek", hots, Eibarren arlo horretan interesaturik dauden hiritarrek, parte hartuko dutelarik. Udalak koordinatzaile lanak egingo ditu, baina gure asmoa herritarren kolaborazioa jasotzea da, askotan ikusten den kultura paternalista baztertuz. Azken finean, kultura hiritarrei zuzenduta badago, beraiek parte hartzea ezinbestekoa dela deritzot".

■ 50 miloi aurten

1991eko aurrekontu munizipalak 50 miloi zuzendu zituen kultura sailerako. Eibarko Udalak urteroa bi mila miloi pezetan mantentzen dituela kontutan hartzen ba dugu, kopuru honek ez dirudi izugarria; dena den, Udalaren ustetan, nahiko dira politika kultural dotoretsu bat egiteko. "Orain arte egindako ahalegin ekonomikoak mantenduko dira", dio José Mediavilla zinegotziak. "Beraz, egun laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten erakundeek jarraituko dute egoera berebera".

Kultur azpiegituren arloan, aldiz, gauzak ez dira epe laburrean konponduko. Proiektu mamitsuak eduki arren AYAKo edifikazioa eta Koliseoa martxan daudenerako, oraingoz alde batera utziko dira, Eibarrek beste premia batzuek dituen ezkerre "Azpiegitura kultural epe ertain edo luze batean egingo dira, uné honetan beste prioritate batzuk daudelako.



Amañako "Dosis Taldea" auzoko taberna baten izandako ekitaldian

■ José Mediavilla: Azpiegitura gerorako laga eta aldaketan artean euskarara eta hemengo rocka bultzatuko dira.

Nahiz eta kulturak jasotzen duen diru kopuruak berdintsuak jarraituko duten izaten, ez dago guztirako dirurik". José Mediavilla kultura zinegotziak ba ditu hitz hauek zihurtatzeko haina datu, Hazienda komisioaren presidentea bait da Udaletxean.

■ Euskara eta rocka

Udal Kultura sailak antolatuta-

ko eta bultzatutako ekitaldi guztiak batzeko "gia kultural" bat kaleratzen da hilero. Horrela, eibartarrok ikus dezakegu zernolako iniziatiba kulturalak antolatzen diren gure herrian. Kultura saileko arduradunen esanetan, gauzak ez dira gehiegi aldatuko legislatura honetan aurrekoarekin konparatuta, baina berezitasun batzuk egongo dira. Rock musikaren arloan, esate baterako, Udalaren politika

zeharo aldatuko da: "Los Sencillos" eta "Los Ronaldos" moduko taldeen aktuazioen porrota ikusi eta gero, inguruko eta herri bertako taldeen ekitaldiak bultzatzeko asmoa dago. "Guzti hau gabonak pasatu ondoren izango da, baina Eibarko rock taldeak maiz jotzeko baliabideak jarri nahi ditugu. Hau aktuazioen munduan; zoritxarrez, talde hauen premia bat, entsaiatzeko lokala, ezin dugu konpondu oraingoz" adierazten du José Mediavillak.

Rocka ez da bereziki zainduko den arlo bakarra, euskarak izango du ere, Kultura Sailak dioenez, ardua espezial bat. "Bai, inolako dudarik gabe. Kontutan hartu behar dugu Eibar herri bilinguea dugula, beraz gure herrian hitz egiten diren bi hizkuntzak zainduko ditugu. Euskararen presentzia garrantzitsua izango da gure proiektu guztietan. Arlo honetan ez dugu inongo zalantzarik", bukatzen du kultura zinegotziak.

"EUSKARA GAZTEENA" KANPAINA

Kanpaina barruan, gazteok ondo informatuta edukitzeko, egingo diren ekitaldi eta kanpainaren gora behera eta arazoien gainean informazio zuzena jasoko dugu geure etxean.

Eskeintzaren barruan Azaroaren 8an ION MAIA bertsolariaren saio berezia izango dugu: Tertulia eta Rap doinu kantatutako bertsoen bat ere izango da. Ez ahaztu ION MAIA "Negu Gorriak" taldearen letren egile nagusia dela. Eta ondoren posible da gazteondako afaritxo popularra egotea.

Bestalde, "Eibar Ezagutuz" programan parte hartzeko gonbita dugu eta sari bikainak irabazteko aukera: Parisera bidaiari, mendiko bizikletak,... Eta amaitzeko, Azaroaren 22an "Maxkarada" eta 23an RUPER ORDORIKAREN kontzertua.



Garagardotegia
BURGUER
Gosariak

Goizeko 9etatik aurrera zabalik

EGO GAIN Kalea z/g (Arrate Hotelaren ondoan) EIBAR

MUEBLES

VICTOR

Urti. Behua. 23

Ribera. 70. 69. 39

E.I.B.A.R.

Alfredo ELORZA

ORTOPEDIA

TRATAMENDU EGOKIAK

ZEZENBIDE, 6 (EIBAR)

Tfnoa: 11 00 70



Kamisetak buruan eta egin eskia munduan

Deportiboko eski komisioa

Negua hasiko zaigu eta, urtesasoi honetako kirol baten gainean hitzgingo dugu orain. Eskia dugu, "...eta kitto!" zerbaki honen protagonista kirol atalean; deportibo taldean dagoen eski komisioa hain

zuzen ere. Honetaz hitzegiteko Juan Antonio Chacón-ekin egon gara. Komisio honen ordezkaria da 26 urteko gazte hau, kirol zuri liluragarri hau orain dela 11 urte aurkitu zuelarik.

Eski talde hau, komisioen artean, lehenengoetarikoa sortu zen.

Komisio honen helburuxeha, kirol ikusgarri honen gorapena eta praktika erraztea, bi espezialitate ezagunenak bultzatuz, bai mendiko pistako eskia, eta bai "fondo" edo iraupen eskia. Guk bereziki fondoko taldea aztertuko dugu.

■ Emaizta onak

Talde honen partaideak nahiko gazteak izan arren -kontutuan izan behar da talde honen batz besteko adina 25 urtetakoa dela- lortu dituzten emaitzak aipagarriak direla esan daitezke. "Euskadiko fondo txapelketan, Juan Carlos Sanz-ek bigarren postua eskuratu zuen fondoko txapelketan. Gure artean ere, Diputazioan, "eskiatzaile promesa" bezala aurkeztu den mutil gazte bat dago, Arkaitz Irureta hain zuzen ere. Beste lorpenak aipatzerakoan, Espainako Unibertsitate txapelketan, Oier Araolazak 15 kilometrotako frogan lortu zuen 10. postua jarriko nuke adibide bezala; beraz, gure emaitzen balorazioa positiboa dela uste dut." aipatzen digu Eski taldeko ordezkariak.

■ Somportera Ibilaldiak

Joan zen urtean, Eibarko ikastola eta eskoletan dauden

umeekin ibilaldi bat egin zen Somport-era, arrakasta izugarria izan zuelarik "apuntatzeko epea zabaldu zen egun berean izan ziren" esaten digu Juanek. Honegatik aurrerik bi ibilaldi egiteko asmoa dago, irteera bakoitzean 100 umek parte hartzeko ideia dagoelarik. "Oso zaila da guretzat bidai hauek txapelketan. Gure artean ere, Diputazioan, "eskiatzaile promesa" bezala aurkeztu den mutil gazte bat dago, Arkaitz Irureta hain zuzen ere. Beste lorpenak aipatzerakoan, Espainako Unibertsitate txapelketan, Oier Araolazak 15 kilometrotako frogan lortu zuen 10. postua jarriko nuke adibide bezala; beraz, gure emaitzen balorazioa positiboa dela uste dut." aipatzen digu Eski taldeko ordezkariak.

Eskia, kirol garestia da, baina gutxi ikusgarria, hala ere, fondo espezialitate, ez da pistakoa bezain garestia. Beraz, denborak lagatzen badu, denok kirol sail hau egiteko aukera izango dugu.

LITERATURA

Liburu lana

IZENBURUA: Sasiak ere begiak baditik

IDAZLEA: Aingeru Epalza

ARGITALETXEA: Elkar

ORRIALDEAK: 117

Hemen gaude osterata ere, oraingo honetan euskal elaberri labur bat aurkezteko prest. Aingeru Epalza dugu bere egile honako honetan. Iruñarra da gure idazle hau. Kazetaritzara dedikatua, Iruñako "Navarra hoy" egunkarian eta "korrok" aldizkarian argitaratzen ditu bere lanak, Euskal Telebistan eta Deia egunkarian jardundakoa dela ahaztu gabe noski. Baditu beste zenbait obra, gaurko honetan aurkeztutakoaz gain; "Ahur taupada geldoak" (olkerki bilduma dugu hau), edo eta "Mugetan irri" (Ortzadar talde nafartarrak aurkeztutako antzerki lana). Aipatzekoa da ere, "Sasiak ere begiak baditik" nobela honek 1985ean jasotako saria Iruñeko udalaren eskutik.

Karlista eta Liberalen arteko gudan edukitako mila egoeratako batean hasten da istorioa. Pedro Mari Arrieta, hasieran karlista dugun honen eskutik. Baina nobelaren amaieran, jasotako irudi hau, oroitzapen bat besterik ez dela ohartuko gara, protagonista berak idatzitako izkribu bat dela bide. Aspaldi, gudate honekin bat eginenez, izaniko amodio batek idazten dio gure Pedrori, eta beraz izango da izkribuaren arrazoi. Baina hartutako azken erabakia ez da gutuna erantzutearen izango, oroitzapen guzti haiek behin betirako lurperatzen baizaki, bere oroitzapen bakarra emaitza izaniko izango delarik. Berak esan bezala: "Josefaren oroitzapen goxoak baizik ez bainau lagunduko hil artean".

Baina momentu hauetan guda bukatu eta Arrietak Grazianarekin

arteko guda batean kausitzen da. P.M. Arrieta, karlista, liberalen aurkako borroka batean, bizirik irten zen bakaren-tarikoa izango zelarik eta bizia salbatzekotan berari zuzendutako makina bat tiroren artean, hanka egin beharko zuen. Uniforme baldar eta apurtu batez horniturik, erreka inguru batera

inguru batera urbiduko zaigun gure laguna bertan, zoritxarrez, txapela erreka eramango diolarik. Bertan hasiko dira gure Pedroren gora beherak. Bere lehenengo zoritxarra, arrama bereko soldadu batzuek Pedro Mariren burua zintzilikatzeko prest aurkituko direnean izango da. Baina hor etorriko zaizkio liberal soldadu batzu, Torres teniente ospetsua delakotan bizia salbatuko diotelarik. Aurreratzean, Torres teniente izango dugu Arrieta, liberalen taldean. Ondo jan, agindu... Baina denborarekin bat, "urrezko eskaladua" eta dirua nahi duten zenbait soldadu agertuko zaizkio (Torres teniente bera...) eta txantxa egin.

Baina momentu hauetan guda bukatu eta Arrietak Grazianarekin (momentu haietan maitatutako neska) alde egingo du. Hala ere, bide erdian agertuko zaizkio bai karlista eta bai liberalak, alderdi bien nahi bakarra dirua zelarik. Orduan konturatu da Pedro, erabiliz izan dela eta bai Torres tenientearen gertaera eta zintzilikatua izan behar zeneko egoera antzerki hutsa izan zirela.


Euskara aldetik, hasieran, zail samarra egiten zaigun euskara dugu, baina poliki-poliki ohitzen joatekoa. Lehen pertsona kontatua dago eta oso irakurterreza egiten da, pertsonaiari asko urbiltzen bait zatzaizkio. Liburu labur eta benetan dibertigarria. Pena merezi du bai irakurtzea lagunok!

SASIAK ERE BEGIAK BADITIK

Aingeru Epalza



euskal literatura-elaberria
ELKAR



Arrantzale zaharrek esan ohi dute

Arrantzale zaharrek esan ohi dute, arratsa gertu dagoenean, eta horizontean Nagthol-eko bi eguzki gorrien azkenengo izpiak hiltzen direnean, orain dela egun eta gau asko, erreinu liluragarri bat omen zegoela, orain Yaghtur hiri iluna jasotzen den tokian. Eta zaharrek, beraien zumezko aukitxoetan eserita, Gormuth ibaitik behera Volgaa inperio zaharretik ekarritako ardo mingotsa edan ondoren, erreinu liluragarri hartako istorioak kontatzen dituzte, eta hango ibaie-tan bizi omen ziren lamia urdinen abestiak kantatzen.

Batzuk, isilenak, beldurtienak agian, erreinu hartako izena bakarrik esaten dute burua makurtuz: Yurmah Naee. Erreinu hartako jaunkoak berriz esnatuko ote diren beldur dira, beldur, Yurmah Naee-ko errege zenaren izpirituak bizirik dirauelako oraindik ere.

Beste batzuk, ordea, lasai asko hitzegiten dute urrun dagoen lurralde hartako Yurmah Naee zaharri buruz. Eta hauek, kontatzen dute, Güiring-nah lurralde zabal eta handi osoan ez direla inoiz topatu hango emakume ederrak bezalakorik, ez Güiring-nah-n, ezta beste hamabi mundu zabaletan ere. Yurmah Naee-ko emakumeak hain ziren ederrak, non batzuk debekatua zuten ezkontzea, beraien gizonetako bat (gehienetan lau bat senar

Lierni Ibargutxi, Eibarko Institutoan 3. B.B.B. kurtsua egiten ari den neska honen ipuia dugu gaurko hau. Eta Kitto...!ko jadanik argitaratutako beste aleren batean eduki izan genuen bere beste ipuinen bat irakurtzeko aukera. Oraingoan, "Arrantzale zaharrek esan ohi dute" izenburua duen ipui hau dugu gure aurrean. Aipatzekoa da Lierni, literatur munduan nahiko sartua dagoen neska dugula, zenbait sariren jabe bait da, azkenetariko bat Europar zehar eginiko bidai bat izan zelarik.

bait zituen emakume bakoitzak) zoratu egin bait zekazeten. Yurmah Naee-ko emakume batekin gau bat, gau bat besterik ez igarotzeaz, Xanhtar tenplu sakratuko sazerdo gorenak, hobezintasuna lortzen zuten; eta Bolsdania-ko emakume-ek, Yurmah Naee-ko bordel famatu-tara bidaltzen zituzten beraien senarrak, hauekin gustora sentitzen ez baziren.

Yurmah Naee-ko emakume hauen artean oso ezagunak ziren Salcnadia bikiaik, Rhom "ile berdea", Mantnae... eta beste asko. Erreinu hartako emakumeen edertasunaren zergatia ez zekien ziur inork, baina gehienek Wegnidia lamiaren kondaira aipatzen zuten, eta kondaira honek zihoez, Wegnidia lamia Taalohn jaunkoak zigortu omen zuen bere alaba zen Badvania hiltzeagatik bere bizia amaitu bitartean (bostehun urte) eguneru hamar haur erditzera, haur guztiak emakume izan behar zirela-rik, eta Wegnidia lamia bera baino ederragoak baina inoiz ez Badvania- beren alaba maitea baino politago-rik; beraz, arrantzale askok esaten dute, Badvania inoiz bizi izan den emakume-jainkosa ederreña zela.

Eta gaua kaietara heltzen denean, zaharrek beraien untzieta sartzen dira, beraiek hainbeste maite zuten ezkontzea, beraien gizonetako bat (gehienetan lau bat senar

FIRIN FARAN

2. Maila

Lehen saria: 40.000.- Pzta.

Bigarren saria: 30.000.- Pzta.

Hirugarren saria: 20.000.- Pzta.

Lanek 7 orri baino gutxiago eta 10 baino gehiago ezingo dute eduki. Saritzen diren lanak Udalaren esku geldituko dira. Sariak 1992ko urtarrilaren 11n emango dira Udaleko Kultura Aretoran bertan.

■ Gazteen bideo lehiaketa. VHS bideo formatoa onartuko da. Beraien iraupe-nak ez du mugarik izango. Zintak zuri-beltzean nahiz kolorean izan daitezke. Gaia libre da. Badajoz-eko udalak antolatzen du. Zintak ikusi ahal izango

■ Eibarko Hiria Gazteen VII. Ipuin Lehiaketa, euskaraz eta erdaraz izango dena. 25 urte arterainoko guzietik parte har dezakete bi maila egongo direlarik: 14tik 17ra eta 18tik 25era. Gaia librea izango da. Eibarko Udaleko Kultura Sailak egiten du dei. Epea 1991ko azaroaren 29an amaitzen da. Lanak orijinalak izan behar dute. Lau ale aurkeztu beharko dira, makinaz idatzitako espazio bikoitzean, folio neurrrian eta alde bate-tik idatziak. Sariak honela banatuko dira:

1 Maila

Leheg saria: 25.000.- Pzta.

Bigarren saria: 20.000.- Pzta.

Hirugarren saria: 15.000.- Pzta.

Bekak

■ "Marqués de Lozoya" 1991ko Arte eta Ohituren Inbestigaziorako bekak. Eskatzaileak espainiar eta iberomerikar nazionalitatea dutenak izan daitezke. Madrileko Kultura Ministeritzara, Plaza del Rey 1, 28071 Posta Kodea, helbidera bialdu beharko dira eskakizunak. Epea 1991ko abenduaren 31n amaitzen da.

■ Espainiar EEE-ko zentruetako ikasle-ent arteko elkaraldetzea. Hezkuntza eta Zientzia Ministeritzak egiten du dei. Epea 1991ko azaroaren 15ean amaitzen da.

Lehiaketak

■ "Donostiako Hiria-Ciudad de San Sebastián" izeneko antzerki lehiaketa Gipuzkoako Kutxa antolatuta. Lanak orijinalak izan behar dira eta edonork aurkez ditzake. Euskeraz edo erdaraz izan litezke. Gaia librea da. Errepresentazioak 75 eta 120 minutu-ren tarteko iraupen eduki behar du. Helbide honetara bidaliak izan behar dira lanak: Centro de Atracción y Turismo, Reina Regente, 20003 Posta Kutxa Donostia. Autore sarrituek 500.000 Pzta. jasoko dute. Epea azaro-aren 30ean amaitzen da. Emaitzak datorren urtarrileko 17an irtingo dira.

BERRIPLAST



Alexander Arizaga Sobrino 28 urtetako eibartar mutil honek, Sarriko Fakultatean egin zituen Enpresarial ikasketak. Bere lehen lana enpresa familiarrean egin zuen, "Hijos de Fernando Arizaga, Armas Colibri". Enpresa honetan udaran egoten zen. Gerago peritazio gestoria baten egin zuen lan.

Orain bere enpresa aurrera ateratzen ari da. BERRIPLAST izena du, eta Ubitxan dago. Zer da BERRIPLAST? PVC-ko leihoak egiten dira.

IDEIA

Alexen etxean PVC-ko leihoak ipintzea nahi zuten. Hemen zegoen materiala ez zitzairen asko gustatu eta horregatik hemendik kanpo begiratzea pentsatu zuten. Ferria baten egon ziren eta han bertan ikusi zuten beraiek nahi zuten leiho perfil bat. Hau ikusi-ta konturatu ziren PVC-ko leihoekin negozio bat montatzeko aukera izango zela. Horrela sortu zen BERRIPLAST.

Hasieran merkatua miatu zuten, prezioa, kostak, irabazkia, eta inbertsio on bat zela pentsatu zuten.

HASIERAK

Hasierak generalki nahiko gogorrak izaten dira beti. Laguntza oso gutxi izan ditu kanpo aldetik. Esan dezakegu barnetik laguntza osoa eduki duela. BERRIPLAST enpresa familiar bat dela esan dezakegu, eta Alexanderek gerente bezala lan egiten du.

Lehenengo bezeroak kontaktu pertsonalekoak izan ziren. Gerago publicitate txiki bat egin zuen buzoneo antzera. Horrela izan ziren lehenengo hasierak. Horrela hasi ziren PVC-ko leihoak komertzializatzen.

Zenbait arkitekturekin izan ditu kontaktuak eta konkretuki lehen Retenaga zegoen tokian, Karmen kalean, hor edifizio bat egiten ari dira eta BERRIPLAST jarri ditu leihoak.

ALEMANIA

Orain dela hilabete batzuk, Alexander Alemaniara joan zen makinaria eta PVC kolorezko perfil baten bila, zeren hemen egin diren perfilak zuriak dira. Alemanian CEALAN enpresakoa nagusiarekin hitz egin zuen eta beraiei gustatu zitzairen Alexen lan modua eta beraiekin tratuan daude orain.

BEZEROAK

Edozein tipotako bezeroak ditu. Etxeko andre batetik, edozein familia, arkitekto, dekoradore, aparejador. Ikusten dugunez bezero askotako enpresa bat sortzen ari da eta esan dezakegu demanda asko duela PVC-ko leihoak.

ETORKIZUNA

Argi dago Alexen eta BERRIPLASTen etorkizuna, Alexek ez du nahi beraren lantokia tailer bat bakarrik izatea baitz enpresa handi bat, eta Alexen hitzetan "Espero dugu horrela izatea, emaitzak oso onak direla esan dezakegu eta gu horrekin aurrera goaz.

Lehenengo Bizkaiko merkatuan gaude sartuta, bezero guztiak ez dira bizkaitarrak bakarrik aina bai gehienak orain momentuan.

Gerago Gipuzkoan komertzial bat jarri nahi dugu, horrela Gipuzkoako merkatuan gogor sartuz, eta Alaba oraingoz nahiko baztertua dugu baina noizbait sartuko gara".

Martxoa: 7-8-21-22

Apirila: 4-5

Matrikulak 34.000 Pzta. izango da. Epea 1991ko abenduaren 5an amaitzen da.

Bestelakoak

Gazte txartela. Eibarko Udaleko Gazte Informazioan har dezakete 15 urtetatik 25rako gazteek. Astelehentik ostirale-ira 10'30etatik 15etara. Eta ez ahaztu E.N.A.a eramaten eta argazki bat.

Ikastaroak

Betan Heziketa Eskola "Henri Dunant"-ek antolatzen du, Gazteen

Ikastaroak batibat gabonetan izango dira:

Abendua: 26-27-28-29-30

Urtarrila: 2-3-4-5-11-12-25-26

Otsaila: 8-9-15-16

Kili Kili
Gosariak
Plater hobinatuak
Goizeko sositatik zabalik
Asteartetik Astelehenera
Astelehenera

ARRATE Kultur Elkarte

Goizeko 7,30etatik zabalik
Pintxo eta tragu xarmantak

Etor hadi
"KULTURALERA"

Laramendi
Etxerako
elektratresnak

Estaziño, 6 Tfnoa: 11 30 11

umea
umeen eta
gazteen arropak

Errebal, 16 Tfnoa. 11 31 64 EIBAR

LINK idiomas
INGELES A EUSKARA
R.E.M. eta O.M.O.

Juan Gisasola, 5 - 1 Tfnoa. 11 39 59

KLAKETA
Jantzi eta konplementoak, zu
jatzeko; zure gusto eta neurrira
Especializatua gaudela Larru
konponketak Larruan egiten

Jardinetan, 19 Tfnoa. 12 70 13

Roitegui Koltxoidenda


ESPEZIALISTAK GARA MARKA EZAGUNETAKO KOLTXOI,
SOMIER, BURURDI EDO EDREDOI NORDIKOETAN.

Sostoaatarre, 1 Tfnoa. 11 07 60 EIBAR

Zagora Hizkuntzen
liburudenda

Arrageta, 7 Tfnoa. 12 72 21

E i b a r



Lorea Elduaien, zazpi hilabete eibartarren eta gure herriari buruzko idazlanak biltzen

Eta Kitto.- Konkretuki zein da zure lana?

Lorea.- Eibartarrek idatzitakoa eta Eibar eta eibartarrei buruz idatzitako guztia jaso ondoren, hurrengo pausua idazlanak klasifikatu, fitxategia egin eta enkuadernatzea izan da.

Eta Kitto.- Artxiboa irekita egongo al da publikoarentzat?

Lorea.- Asmoa, biblioteka edo liburutegi berria egin behar denez, Eibarko gaiekin atal bat egitea da. Horrela, guzti hau publikoarentzat irekita geratuko da. Batzutan originalak lortu dira ("Jakin", "Arantzazu" eta "Anaitasuna" aldizkariak), baina gehienetan fotokopiak izango dira, denak Arantzazuko Santutegitik ateratakoak. Bestalde, esan behar da fitxak ordenagailuan sartuko direla.

Eta Kitto.- Zer eratako lanak dira?

Lorea.- Batipat literatur lanak agertu dira: orainarte ezezagunak ziren Mogelen gauzak; San Martinen eta Imanol Laspiurren gauza pilo bat, Galdosenak...

Liburu oso bitxiak agertu dira. Esate baterako "Tendencias de nuestro lenguaje natural", Vicente Agirre medikuak idatzia eta he-

mengo Orue argitaletxeak plazaratua 1898an. Liburu zaharrak eskuratzera, hala ere, zailagoa izaten da, zeren agertu egiten dira, eta jendeak bota egiten ditu edo bestela etxean dauzkate benetan daukatena jakin gabe.

Eta Kitto.- Zer nolako metodologია erabili duzu zure lanean?

Lorea.- Jon Bilbao eta Juan San Martinen bibliografiak eta Unanueren liburua begiratu ondoren zerrenda bat egin nuen aldizkariak urtez urte sailkatuz, ondoren aldizkari horiek begiratzen hasi nintzelarik. Gertatu zen Jon Bilbao-ren Bibliografian ez dauden gauza asko agertu zirela, eta kasu askotan aldizkari zaharrek aurkibiderik ez daukatenez, orriz orri pasatu behar izan nituen. Ondoren zerrenda batzuk egin nituen aldizkariz aldizkari eta urteka. Gero fitxak egiten nituen autoreka eta gaika.

Eta Kitto.- 7 hilabete hauetan buruturiko lana gogorra, astuna suertatu zaizu?

Lorea.- Beti ibiltzen zara fotokopiekin eta papelekin liauta, baina oso gustora nabil lan hau asko gustatzen zait eta. Gainera Arantzazuko Santutegiko praileak oso atsegi-

27 urte dituen Lorea Elduaien eibartar gazteak zazpi hilabete darama Udaleko Ego Ibarra Batzordean "Eibar eta eibartarrei" buruzko artxiboa prestatzen. Publikoarentzat irekita egongo den artxibo honek eibartarren idazlanak eta gure herriari buruz idatzitako guztia bilduko du. Loreak Historia ikasketak egin zituen Donostiako EUTG-en, espezialitatea Madrilen egin zuelarik. Honetaz gain, Biblioteka, Artxibo eta Museo ikastaro bat ere egin du. Eibar eta eibartarrei buruzko artxibo hau lantzerakoan benetan harriturik gelditu da, lehen ez bait zekien hainbeste eibartar idazle zegoenik.

nak izan dira. Otsailetik orain arte egon naiz hara joaten astero bizpahiru aldiz, Arantzazun bait dauzkate Euskal Herrian argitaratu diren aldizkariaren bilduma osoa, eta liburuak ere ia denak. Idazlanen bilketa horretaz gain, orain dela urte batzuk Eibarko zaharrek gure herriko ohiturei buruz egindako grabazioen transkripzioak ere egin ditut.

Eta Kitto.- Norentzat izango da zure ustez baliagarria idazlan-bilketa edo artxibo hau?

Lorea.- Batez ere lanak, tesiak edo bibliografiak bezalako lan oso puntualak egiteko uste dut izango dela oso erabilgarria.

Eta Kitto.- Pertsonalki zer eragin izan du hilabete hauetan zehar egindako lanak zuregan?

Lorea.- Bibliotekako gauzak betidanik asko gustatu zaizkidanez, gehiago ikasi dut; Arantzazuko Liburutegia ezagutu dut, fitxen problemak, hauek nola egin...

Eta Eibarri buruz asko eta asko ikasi dut. Lehen idazle batzuk ezagutzen nituen baina beste batzuk eibartarrek zirenik jakin ere ez.

...eta kittok! Gomendaturik



Zakarrak, Arrasate "Oi" talde bat dugu eta duela bost hilabete kaleratu dute beraien lehen make-ta, dagoeneko, mila kopia saldu dituztelarik. Zer esanik ez, maketa interesgarria benetan eta meritua handikoa, lau egunetan zehar grabatu dutela kontutan harturik. Apirilean grabaturiko maketa honetan hamar kanta sartu dituzte: Salinbrukis, Skinhead, Perros, Bajo control, Fin de semana, Desengañ, La mili, Skinhead Girl, Si los chicos están unidos. "Oi" musikarekin identifikatzen diren rock and roll tradizionala eta Ska tendentziak erabiltzen dituzte oinarritzat Blues-a ere odolean daramatelarik. Beraiek diotenez, ez dute atsegin burua larregi apurtzerik musika egiterako orduan, garrantzikoena beraientzat "Oi" musikaren sustriak mantentzea da. SHARP mugimendurekin identifikatzen dira (Skinhead-ak arrazakeriaren aurka) eta argi utzi nahi dute, ideoloji faszistarekin ez dutela zerikusirik, are gehiago, SHARP mugimendua antifaszismoan, antirazismoan eta apolitikan duela bere oinarria. Kantuetan, eguneroko gaiak, futbola, lagunak, neskak etabarri buruz hitzegiten dute.

Orain dela bi aste jo dute Geronan, beraien lehen kontzertua Eus-

kal-Herrikan kanpo. Jende asko hurbildu zen talde arrasatear hau ikustera eta tratatu oso ona jaso omen zuten. Extranjeriko fanzine ezberdinetan ere agertu dira: fanzine Ingelesak, Italiarrak, Belgak etab.

Talde hau Oscar (kitarra eta ahotsa), Patxi (kitarra), Xabi (baxua), Mitxel (bateria) eta Petetek (ahotsa) osatzen dute.



EIBARKO HISTORIAN ZIAR

-PEDRO ZELAIÁ-

Orain arte ikusi dogunez, eta duda barik, esan geinke Eibarko industria berezia armagintza izan zala. Ziur asko, gaiñera, industria onek indar aundixa artu eban, Felipe bigarrena errege zala, 1573-garren urtian, Plazentzian sortu zanian Armen Errege Fabrika. Laister, plasentziatarrak fabrika oni Errege-Etxia deitzen asi ziran.

Ez daigun, baiña, pentsatu Plasentzian bakarrik eratuta zeguala fabrika au, ez. Eibar, Ermua, Elgoibar, Plasentzia, Bergara, Arrasate, erri onek danok egiten eben erregearentzat arma-biarra, naiz eta Plasentzian egon zuzendaritza eta armak probatzeko egoitza edo

probaderua. Ara, Plasentziara, eruan biar ziran arma-biar guztiak. Antxen baita be bizitzen zegoen Errege-Etxian- erregiaren ordezkariak eta bardiñ an zegoen almazena eta arma tresnak esamiñatzeko lekuak. Gaiñera ez daigun pentsau Plasentziako Errege-Etxia fabrika aundi bat zala, antxe bertan biargiñ asko lanian jardunaz. Ez. Taller txiki asko ziran Plasentzian eta len esandako inguru errietan, Eibar-en batez be, beren kontura, azkatasuna galdu barik, baiñan araudi eta konpromiso batzuek gordeaz, Plasentziako Errege-Etxian lagatzen ebezenak beren arma-biarrak.

18-garren gizaldia amaitzerakuan, Eibar-en 170 etxe zegoen

eta 140 basarri. Orduko histori iztegi batek ara zer idazten eban: "Eibarko biztanle edo habitantiak Plasentziako Errege Arma Fabrikarako biarra egiten dabe, eta orretan oso yayoak, jakindunak, dira. Beren artetik bat aipatzekotan, Agustin Bustindui ipiñiko genduke lenengo maillan. Izan be, Bustindui jauna oso trebia da langintza onetan. Eibar osoari begiratuaz, badagoz an bi burdiñ ola edo ferre-rixa, eta bertan egiten dira itxasontzientzat era guztietako piezak. Baita be badagoz fusil kañoiak barrenatzeko lantegiak."

Aipatutako Agustin Bustindui au oso famatua zala James D. Lavin historigilleak esaten dauku.

Ingles historigille onek bere "Españiako suzko armen historia" liburuan idazten dau Bustindui ar-



magintza ofiziuua Joakin Zelaia-gandik ikasi ebala eta probintzia guztiko onena izatera eldu zala.

James D. Lavin-ek oraindik geixago diño armagintzari buruz. Ara bere berbak: "Lenenguetako errege-armagiñetako bat Anton Urkizu, oriotarra, izan zan. Onek millaka txispadun armak egin ebazen Españiako gudaroste edo ejerzitarrako. Baiñan ori, duda barik, euskal errietako beste armagillien laguntasunakin egin al izan eban, an bai zeguan España guztiko armagintzarik zarrena."

Bai, irakurle, gure Eibar ipiñi geinke armagintzaren lekuri zarrenetako bat lez.

Pakita Arrizabalaga "Sahietsa":

"Josten erakutsi eñ bihar leukie"

Gaur egunian erropia karu daola danondako gauza ezauna da. Josten dakixanak ostera erropa ederrak eitteko aukeria eukitzen dau esku ona euki ezker. Oiñguan Pakita Arrizabalagak ("Sahietsa" izenakin be ezautua) arixa ta jostorrazakin zelán hasi zan ta horrek gaur egun zelako estimaziñua dakan kontatzen dosku.



"Oiñ dala hogeï urte eruaten zanak bueltia emoten dau"

Ondo ikusten dittut horrek korte akademixok, eztaoz asko baña ondo dao. Fiñak dianak juaten dia horra, ta arratsaldia erropak eitteko aprobeztatzen dabe beste batzuk kafia hartu ta jokuan eitten daben bittartian. Danetik dao: bihargiña dana ta ezтана. Baña gaur gazterixia ibiltarixa dator."

Pakita hamairu hamasei urte bittartian hasi zan josten ikasten Mercedes Alberdiñian, Eibarren bertan. Berak diñoskunez: "Eibarrek euki daben onena izan zan. Pentsaizu!! alargun geldittu zan etxian lau seme-alaba ta hiru zar ekazela, ta berak bakarrik eitte eban biharrian. Egunero seiretako mezetara juaten zan ta gero lana: guri josten erakusten zeskun ta kanporako be lana eitteban. Pentsaizu!! Zelako emakumia!! Horri bai, horri monumentua eñ biharko jakon!! Ze... horren moduko emakumerik ezta izan be eiñ!!

Gero, hamazortzi urtekin, Madridera juan nitzan "kortia" ikastera han akademixan ikasi ta titulua hartzeko. Han neuala, hara, Aginaga bat be etortzen zan txoferra ta kotxiakin ta zera esaeztan: - Eibartik honaño etorri kortia ikastera ta hamengo meto-
dua eruan biozu? Neuk erakutsikotzut Madridera Granda apelliruko modistiak neri erakutsi zestana-. Ta halantxeik ha meto-
dua ikasi neban, berak erakutsi zestana.

Han ikasittakuakin hamen josten hasi nitzan ta korte klasiak emoten be bai."

Alabiak afiziñua ekala ikusi zebanian berari erakutsi zetsan zekixan guztixa ta gaur egun: "alabia da modistia, nik dana berari laga netsan."

• Pret a porter aurretik ta ondoren zein da ezbardinttasuna?

"Ba, horrek apurka-apurka eboluzionatzen dau. Gaztien gauzak zelán datozen, prakia da datorrena, ta minifaldia. Hori aurreko denporetan be suertatzen zan ta modia kanbixatzen zan: batzutan gona motza eruaten zan, bestetan luziaua; batzutan bizkar-
rrak zabalauak, bestetan estuauak... baña alabia nere aldian ona da moda gauzetan."

• Len emakumiak josten zeban, oiñ ez hainbeste; zer iristen jatsu?

"Nik esan bihar dotsut eskoletan, unibersidadian edo klasia emoten dan lekuan, kolegixuetan... erakutsi eñ biharko leukie, obligatorixua izan

biharko litzake emakumiak hori ikastia.

Familixako ama batendako lau operaziñuak eitten jakitzia bestekua da josten pixkat jakitzia. Hori kolegixoguztixetan eskatu biharko litzake, ze hori jatia morukua da!!"

Anekdotak benetan barregarria kontatu dosku Pakak, benetan gaur egunian etxe askotan pasatzen dana agertzen doskuna: "oiñ dala gitxi dentista bat ezautu neban konponketa bat eittera bertara juan nitzanian ta, harek: -Ene!! Semiak apurtu ezitan alkondara bat ekarri biotzut konponduidazun-. Ta begiratu notzianian zera esan netsan: zer? alarguna zara ala? Ta berak: -ez, enaiz alarguna baña... gaurko andrak ezta kixe josten-.

Pentsaizu!!!... Bada botoirik pe josten eztabena!! Hori penia da!!"

Izan ei zan Eibarren oso andereño ona izan zana. Hau oso listia ei zan ta, zera esateutsen berakin ikasten ebizanei: -Eibarrek dakana eukinda gittxi ikasten da."

• Len kursilluak eitten zian, oiñ ez, zeaittik?

Ezebes, oiñ dana geldi dao. Zelan gauzia eiñda saltzen dan, jentia salduen esperuan egoten da. Nere alabiak esaten dabenez: -ez leukie preziuak hain goixan ipintzera obligau bihar-, ezta? Hobe izango litzakela

• Mercedes Alberdi. Horri bai, horri monumentua eñ biharko jakon!! Ze... horren moduko emakumerik ezta izan be eiñ!!

• Hamazortzi urtekin, Madridera juan nitzan "kortia" ikastera han akademixan ikasi ta titulua hartzeko.

• Ama batendako lau operaziñuak eitten jakitzia bestekua da josten pixkat jakitzia.

• Hobe izango litzakela preziuak txikitxu ta salduak gitxitzia ze, horrek komertzio guztixa izorratzen dau.

preziuak txikitxu ta salduak gitxitzia ze, horrek komertzio guztixa izorratzen dau. Erropia erostia arrer-
glauaua izan biharko litzake.

Gaur jentia salduak etorri arte itxaitten dau, ta erropia bota eitten dau!! Saldua datorrenian erosten dau.

• Zelakua da jostunen eguna?

"Ba, antzerakua. Guk ondiokan hori gorde dou. Zelebratzen dou. Oiñ be preparauta dakau, enkargauta dakau zelebratzeko. Baña... Mercedesi, nik ikasi nebanekuari, hari eiñ biako jakon monumentua!!

• Eibarren josteko afiziñuak jarraituko ete dau?

"Bai, bai. Ondo erakusten dabe. Asko dao erakusten dabenak. Beste zeregiñik ezta kan emakumiandako oso gauza ona da: ikasi, erropak eiñ ta... arratsaldia pasatzen dabe. Oso gauza ona da.

Ondo ikusten dittut horrek korte akademixok, eztaoz asko baña ondo dao. Fiñak dianak juaten dia horra, ta arratsaldia erropak eitteko aprobeztatzen dabe beste batzuk kafia hartu ta jokuan eitten daben bittartian. Danetik dao: bihargiña dana ta ezтана. Baña gaur gazterixia ibiltarixa dator."

• Modia, zer da?

"Modiak bueltia emoten dau. Oiñ dala hogeï urte eruaten zanak bueltia emoten dau. Koloriekin bardiña pasatzen da. Modia bueltaka dabil, koloriak be bai.

Guk gaur boutique bat dakau San Andres Pasialekuan. Parisera, Barzelonara desfiliak ikustera, Madridera ta juaten dia ta eiñdako gauzak ekartzen dabez. Guk konponketak eitten douz. Sahietsa izena bizi giñan baserrikua da, tradiziñuak jarraitzen dau: -Arrizabalaga Sahietsa-."

MUÑO A

ZURE AUTOARENDAKO
ORDEZKO PIEZAK

BIDEBARRIETA 14, 16.
TFNOA. 11 13 17
11 62 28

HISPANIA SEGUROS

Fernando Legardi Lopez

Plaza Barria, 8-1º Eak. Tfnoa: 11 11 49
EIBAR

ESAN IGELTSERITZA

Igeltseritza arloko lanak.
Etxe barru eta kanpoak konpontzeko zeure zerbitzuan gaude

Tfnoa.: 17 39 04

EIBAR eta ERMUA



UBITXA

Gimnasio-Eskola

Taekwon-do, mantenimendua,
kulturismoa eta sauna-masaia

Ubitxa 3,5

Tfnoa.: 701340

Gaztainerre jaia aspalditik ospatzen da gure herrian. Lehengo hilen arimaren alde egiten zen ospakizuna. Jai hau egiteko era asko egon diren arren, kasu guztietan afari bat egitea da, eta noski, gaztainak ez dira faltako. Azaroaren bigarren astelehenan, hilen hilabetean hain zuzen, izaten da.



Gaztainerre: Astelehen bateko bihotzerre

Gure aitzixa eta amamentzat zozgarri pasatzeko gau bat izaten zen. "Zazpigazte" elkarte gastronomikoek "sozietatean" afaldu porru-salda, karakolak eta gaztainak, eta Astelehen frontoira joaten ziren jo ta ke dantzan egitera. "Farra ederra egiten genduan" aitortu dute. Lagun hauen ustetan, "Eibarren eta Plaentxin egiten da bakarrik".

Baina gaur egun gaztainerreak "asko galdu dutela" aipatu digute. Eurek orain ere ez diote uko egiten jatearen plazerrari.

Casinoko elkartekoek ere "farra demasa egiten dute andria etxian laga eta soziedadian berakatz sopia, karakolak eta gaztainak jaten do-

guz". Badaude beste batzuk, askoz ere formalagoak eta andrearekin etxean afaltzen dutenak ere; nahiz eta, gehienek dirua izanez gero parranda egin.

Gaur eguneko gazteentzat afaria eta farra

Baita ere A.E.K.-ko irakasle eta ikasleek beraien modura ospatzen dute jai. Erakunde honek orain dela 5 urtetik afari herrikoi bat egiten du. Bertako irakasle baten aipamena hemen: "Afarria egiten dugu. Lehen Udaletxeko arkupeetan egiten zen. Baina, debekatuta dagoenez Orbea frontoian egin genuen iaz. Mahaiak

eta ahulkiak guk lortu behar izan genituen eta diru kantitate bat ordaindu, nahiz eta gutxi izan. Afariaren ondoren jolasak egiten dira. Bakoi-tzak nahi duen janaria ekartzen du, beti marrazkiloak eta gaztainak egon arren. Baina ez dugu guztiz errespetatzen ohitura hori. Bakoi-tzak bere taldearekin afaltzen du, gero buelta bat eman..."


Baina dena ez da izaten jan eta jan... bertsoak bota dituztela ere aitortu du irakasle honek. Baita ere aipatu du ez dela eskusiboki berai-entzat antolatutako zerbait, baizik eta Herriarentzat zabaldua dagoela. Baita, gaztainerre eguna, nondik datorren, zer den kontatzen dela, eskola ematerakoan.

Ospatzen al duzu Gaztainerre eguna? Gustokoa al zaizu?




1. Asun Cid. 23 urte. Ikasten.

"Gaztainerre gauean asko disfrutatzen dut. Normalean etxean ospatzen dut nire gurasoekin, baina AEKan ikasten nenbilenan kalean afaldu eta kriston parrandak egiten genituen."




2. Miren Iriando. 62 urte. Etxekoandrea.

"Egixa esango detsut, geure etxian ez da bape ohiturarik gaztainerre eguna zelebratzeko, nahitxa Eibarren aspaldiko tradiziñua izan."



3. Alberto Larrañaga. 68 urte. Tabernaria.

"Oso ondo irixten jata, gainera aspaldiko jaixa da; nik Karakolak, gaztainerriak... ta beti jan izan dou egun honetan. Baina lehendik hona asko galdu da; sasoi baten jendiak ondo zelebratzen zeban (afari edarrekin), baiña oin ziharo galduta dao. San Andres bezperia, gaztainerre eguna... oin danerako ez jaku lletzaten!"




4. Jose "Querido". 79 urte. Jubilatua.

"Gustatuko ez jata ba...! Baina lehendik konparatua alde haundixa dao; lehen afarixak askoz be sinpliauak izaten ziran. Gure amak baserriara joaten ziran, Mertzetera edo Aretara, ta bertan inguruko andrak gaztain erriak ta txorizo tortillia jaten zeban ta akabo, goixao goixao etxera. Gaur egunian demaseko banketiak eitxen dira tabernetan!"



5. Jesus Uriguen "Etxegina". 68 urte. Jubilatua.

"Lantzian behin zelebratzen dot, gustora gainera, baina urtero ez jata lletzaten, jubilatua naiz eta... Berakatz sopia, marrazkilo batzuk ta gaztainerre, hori izaten da neure afarixa. Gero ahal dabenak iluntzian juerga, ta hurrengo egunian ajia".



6. Jose Ramon. 17 urte. Ikaslea.

"Ez dut sekula gaztainerre eguna ospatu, badakit oso aspaldiko ohitura dela baina ez nik eta ez nire familiak ez dugu ohiturarik".

Azarorako - Agenda

ERAKUSKETAK

Azaroaren 23tik - Abenduaren 2ra. Klub Deportiboko Argazki TALDEak antolatutak. ARGAZKI ERAKUSKETA. Egilea: Jose Valderrey. Lan Kide Aurrezkiaren erakusketak gelan. (J. Etxeberria kalean).

TOPALEKU: Elisabet Eguren, Eibarko artistaren lanen erakusketak Azaroaren zehar.

HILAK 1.- INDALEZIO OJANGUREN IV. ARGAZKI LEHIAKETAREN SARIAK BANATU ETA ONDOREN, AURKEZTUTAKO LANEN ERAKUSKETARI HASIERA EMAN. Tokia: Udaleko Erakusketak Aretoa. Iraupena: Azaroaren 18a arte.

HILAK 24.- "EXFIBAR 91" FILATELI ERAKUSKETA. Udaleko Erakusketak Aretoa. Abenduaren 1a arte.

MUSIKA

TOLOSAKO ABESBATZEN XXIII NAZIOARTEKO EMANALDIA. Eibarren eskainiko dituzten emanaldiak.

• Urriak 29. Estocolmo-ko St. Jacobs Chamber Chopl. San Andres Parrokian. Ordua: 20'30.

• Hilak 2. Hungariako Z KODALY Umeen abesbatza. Konderbatorioan. Ordua: 20'30.

• Hilak 3. Vilnus-eko JAUNA NUZIKA Abesbatza. Unibertsitate Laboralean. Ordua: 20'30.

• Hilak 17. Chesteko Unibertsitateko Musika Bandaren Kontzertua. Ordua: 12. Tokia. Udaletxeko arkupeak.

Hilak 21. J.B. Gisasola Udal Musikategi edo Kontserbatorioko ikasleek kontzertua emango dute. Ordua: 19.

• Hilak 22. San Andres Eleizan, Sostoa Korakal kontzer-

tua emango du, 20'30.

• Hilak 23. RUPER ORDORIKAREN KATALDIA. Tokia: Unibertsitate Laborala. Sarrera: 300 pta. ikasle, langabetu eta gazte txartela dutenek. Bestee: 400.

• Hilak 24. Udalean, Kontzertua Udal Musika Bandaren eta Txistularien eskutik Santa Zezilia eguna dela eta.

• Abenduak 1. Kontzertua Elgoibarko MUSIKA BANDAREN eskutik. Ordua: 12ak. Tokia: Udaletxea.

ANTZERKIA

Hilak 22. MASKARADA Taldea. Lana MARXKARADA. Unibertsitatean gaueko 22'30etan. Sarrera: 300 pezeta ikasle, langabetu eta gazte txartela dutenek. Bestee: 400 pta.

• Hilak 26. Catalunyakoko NESUN DORMA Taldea. Lana "On Kixote". Ordua: 10'30.

• Hilak. Frantziako VELO THEATRE Taldea. Lana: "Enveloppes et débâllages". Ordua: 16.

• Hilak 27. Errumaniako TANDARIKA Taldea. Lana: "Zenizienta" 10'30 eta 16 (bi emanaldi eguneko).

LIBURUAK

Hilak 12. LIBURU AZOKAREN inaugurazioa. Tokia: Untzaga Plaza. Iraupena: Azaroaren 12tik 17ra. 20 stand egongo dira. Udalak ere berea izango du.

• Hilak 29. Berbera JOSELU ANAIAK taldearekin, gaueko 10'30etatik 2'30etara.

Hilak 30. Untzaga Plazan, Feriaren epai-mahaikideei euren lanari ekingo diote.

• Goizeko 10etan Txistulari Bandaren "Alborada".

• 11etan San Andres Parrokian: Sostoa Korakalaren eta Parrokiko Koruaren kantaldia meza nagusian.

• 12'30etan Bertso emanaldia Ion Enbeita eta Andoni Eganarekin: Tokia: Untzaga Plaza.

• 13'30etan: Kartel lehiaketaren sariak eta Feriakoak emango dira.

• Arratsaldeko 17etan, Eibarko HERRI KIROLAK taldearen aurkezpena. Talde horrek eshibizioa eskainiko du. Tokia: Untzaga Plaza.

• 18tik 21era kalejira.

ABENDUAK 1. Oñatiko Nazioarte Artzai Txakurren irabazlea izan zen Jose Antonio Arrillagak bere "Txati" txakurrekin eshibizioa eskainiko du. Andres Atxak ere parte hartuko du bere txakur "Txato"rekin. Ordua: 11. Lekua: Azitaingo zelaiak, zaborteagaren atzekaldean.

• AMAÑAKO KULTURA ARETOAN UMEENTZAKO ZINE-EMANALDIAK

Hilaren lehen eta 3an: Paul Verhoeven-ren "Desafio Total".

• Hilak 10. Arthur Hilleren "No me chilles".

• Hilak 17. Jhon G. Avildens-en "Karate Kid III".

• Hilak 24. Walter Hill-en "Danko Calor Rojo".

DEIALDIK

Hilak 15. "BIZIKLETA" artea-postaz deialdiaren lanak jasotzeko azken eguna.

Hilak 29. GAZTEENTZAKO VII IPUIN LEHIAKETA (EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ) Lanak aurkezteko

azken eguna.

BERTSOLARITZA

Hilak 24. EUSKADIKO BERTSO TXAPELKETAREN GIPUZKOAKO AZKEN LAURDENAK. Tokia: Ipurua Kirolegia. Goizean 11. Sarrera: Udal Euskara Zerbitzuan.

LIBURU AURKEZPENA

• Hilak 28. "Umore Giroan" liburuen aurkezpena.

Egilea: Pedro Zelaia jn. Marrakzi-egileak: J.A. Azpillikueta, Ander Gisasola eta Paulino Larrañaga.

Hitzaurrea: Juan Martin Elexpuruena. Aurkezlea: Jose Luis Ansorena Miner.

Ego Ibarra Batzordearen boskarren argitalpena. Tokia: Udaletxeko Batzar Aretoa. Ordua: 19'30.

HITZALDIAK

Tokia: TOPALEKU. Arratsaldeko 19'30etan. EMAKUMEA GIZARTEAN (Gai monografikoa):

19an: "Matriarkatura". Hizlaria: Merte Gurrutxaga.

20an: "Sentimiento de culpa de la mujer". Hizlaria: Itziar Etxeberria.

21ean: "Sexoa eta osasuna". Hizlaria: Mari Luz Esteban.

27an: "Euskara gaurtik gerora". Hizlaria: Iñaki Larrañaga.

KIROLA

MENDI IRTEERAK Klub Deportiboko Mendizale taldeak antolatuta:

- 9an: Arantzazu-Altsasu.

- 23an: Urdiain-Barindano.

NORK-ZER

Koordinatzailea:

Fernando Muniozguren.

Erredakzio taldea:

Ana Aizpuru.
Idoia Irazola.
Fernando Muniozguren.
Amaia Muruamendiaraz.
Oskar Rekalde.
Arrate Zuloaga.
Aitor Gorosabel.
Jose Luis Gorostegi.
Letizia Gomez.
Mixel Gorosabel

Argazkilaria:

Jose Valderrey.
Mireia Ugarteburu.

Literaria:

Ane Sarasketa.

Maketazioa:

Jose Valderrey

Komikia/Marrakzia:

Ander Gisasola.

Inprimaketa:

Gertu

calcul
mecano

Zure Bulegoa Jazteko Egokienak Gara

Torbio Etxeberria
Tfnoak. 70 07 50 / 70 11 95

EIBAR (Gipuzkoa)



Juan Jose Irigoyen

TEKNIKARI KOMERTZIALA

CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA., S.A.
ASEGURU AHOLKULARI ETA ARTEKARIK

Juan Gisasola, 6 behea
Tfnoa. 70 29 98
20600 EIBAR

Tfnoak: 42 91 38 / 39 / 40 / 41
FAXa: 42 67 27

CONDAL. ΤΙΠΟΔΤΕΓΙΔ

Busti barik garbitzen dugu tintaketak
Etxez-etxeko zerbitzua

Tfnoa.: 11 23 64

EIBAR